



MAILA

4

ZAILA



MONDARRAIN-GOROSPIL

ITSASU

Ibilaldi bikaina, ibiltari onentzat eta mendian ardura lasterka ibiltzen direnentzat (trail). Mondarraingo tontorretik pasako zarete. Bide bikaina da. Paisaia aniztasuna, bista zoragarriak eta denetan protohistoriako elementuak eskaintzen ditu. Erreferentziatzko denbora ibiltarientzat.



Argazki kreditua: Gilbert Ducasse

Abiatzea: Ateka / Sanoki aparkalekua.

Helbidea: karrika nagusia, plazan ezkerreko bidea segitu, ehun metrotan eskuin: aparkalekuko sartzea. (Ateka/Sanoki gelaren beheko aldean). **D** Aparkalekutik atera eta eskuinera joan. 628743 - 4798876 Errekaraino zuzen jautsi (eta erreka trebesatu) **1** 628661 - 4798503 Basaburuko errota pasatu (Larrondoa). Atharri kaskoko bidea segitu (gaztainadi ederra). Bost bideko kurutzera heldu. **2** 628745 - 4798274

Eskuinera joan, bide mundrunatura eta etxalde multzo batera daraman bidetik. 200m ibili bide honetan, eta ezkerrean joan igotzen den lehen bidetik **3** 628023 - 4798142.

Igotzen segitu artzaintza leku batetik, Atharri mendi mazelan. Bidea Legarreko leporaino doa. **4** 627588 - 4797533.

Bide mundrunatua trebesatu eta Mondarrainera buruz igotzen den pareko bidetik joan.

Amezketako lepoa **5** 627222 - 4796503, koniferoen oihan ttipi baten bazterrean, Mondarraingo tontorrera buruz joan. Larrean, seinaleak ongi segitu. Pagadi bat trebesatu, litamendu arrokatuen artetik. Eta gero gailurrera buruz zinez igotzen hasi. **6** 627155 - 4795537.

Ganean, bista panoramiko zoragarria dago. Mendiaren beste aldetik jaitsiko zarete. Jautsiera hastapena aski gogorra da. Gero, xendra belar artean desagertzen da eta Zuharretako lepora heltzen da **7** 626690 - 4794115, goratasuna 565 m. Ezkerrean GR 10 bidetik joan (+ seinale horia), parean den landa zerratu bateraino. **8** 6264472 - 4792004, goratasuna 589 m. Eskuinera joan eta xendra segitu hesiaren luzeran, Gorospilgo leporaino. **9** 626062 - 4791807, goratasuna 651 m.

Paisaiatz baliatu: aro ederrarekin, Larrun mendia, kostaldea eta ozeanoa ikus daitezke. 76. mugarririk hurbil, monolito bat dago, etzanik **Pc** 626101 - 4791868: Itsasu (Y), Ezpeleta (Ez) eta Baztanen (BB) arteko alhapide eremuak bereizten dituen grabadura (partzuergoak). (ik. Ateka).

Eskuineko xendra seinalatutik joan Bizkarluzeko gainaren luzeran. Zuharretako lepora jautsi.

Mondarraindik jausten den bidetik joan, lehengo kontrako zentzuan. Lehen mendixka pasa, Mondarrain Ttipi, eta lehengo korrale baten heinera heltzean eskuinera joan. **10** 627187 - 4795188, goratasuna 652 m. Handik hurbil, Hezurreta izeneko protohistoriako harrespilak daude. Harrespil horietariko baten harrizko koroa argiki ikus daiteke. **C** 626974 - 4794475. (ik. Ateka).

Hastapenean doi-doi markatua den baina halere seinalatua den xendra belartsu batetik joan. Arroka handien eta pago ederren artetik sigi-saga joan, Mondarrainen itzulia eginez eskuinetik. Bide batera heldu eta bide horretarik joan, bide mundrunaturaino. Ezkerrean joan eta errepidean segitu 1,3 km luzez. Etxe multzoaren ondotik, eskuinera joan eta xeila pasa. Bidetik segitu zuzen, Atharriko gurutzeraino, mendixkaren ganean.

Ezkerrean itzuli eta bide seinalatua segitu. Bost bideko kurutzera jausten da, pentzeen artetik. Aparkalekura itzuli.



Itsasuko Herriko Etxeak egina eta inprimatua. Ez lurrera bota.

**D** Itsasu

Ateka/Sanoki aparkalekua

GPS:

628743-4798876



6 oren



+940 m

-940 m



21 km

Seinaleak



tik



ra



tik



ra



Huts egin behar ez direnak:

- Zohikaztegiak patarrean
- Mondarraingo gotorlekuaren hondakinak
- Hezurreta harrespilak
- Ik. Ateka gunea*
- Euskal kostaldeaz eta Errobiko ibarraz ikuspegi ederrak
- Gorospilgo monolitoa.
- Ik. Ateka gunea*
- Fauna: saiak, pottokak, betizuak, ardiak.



Euria delarik, saihestu.

Animaliekin urruntasun zerbait atxiki.

Lekuak errespetatu.

Ibiltari eta kirolari onentzat bakarrik.

Argibide gehiago:

Itsasuko Herriko Etxea - 409 Karrika Nagusia - 64250 Itsasu.

Tel: 05 59 29 75 36 - E-mail: accueil@itxassou.frWebgunea: www.itxassou.fr